



Gorrotzko gertakariak Euskadin: azken bilakaera

Jon-Mirena Landa Gorostiza

Zuzenbide Penaleko katedraduna

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrako
zuzendaria

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea*

Sarrera

Euskadi emigratio-lurralde izatetik migrazio-korronteak jasotzen dituen lurraldea izatea dakarren aldaketa erronka bat da, aukera bat, eta gizartea paradigma hauetara bideratzen du modu positiboan: aniztasunerantz eta pertsona-talde eta kultura ezberdinen arteko aberastasunerantz. Baina eraldaketa horretan, arrazismoarekin eta xenofobiarekin lotutako delituzko erreakzioak ere izaten dira, eta hala gertatzen da, zoritxarrez, gure inguruan ere.

Diskriminazioari paradigma gisa aurre egiteko estrategiak, azken ratio gisa, berriazko politika kriminal bat izatea dakar, xede-kolektiboek eraso egiten dieten jokabide larrienak jazartzeko eta zigortzeko. Politika kriminal horri ez zitzaion ekin laurogeita hamarreko hamarkada (XX. mendea) ongi sartuta zegoen arte: 1995eko Zigor

* Ekarpen hau proiektu honen emaitza da hark finantzatzen du: I+G+I PGC proiektua, B mota, PID2020-115320GB-I00, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarena (MICIN/FEDER UE), «*Delitos de odio en España: retos pendientes*». Ikertzaile nagusia, Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Zuzenbide Penaleko katedraduna, eta Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrako zuzendaria <http://www.katedraddhh.eus>; <http://www.jmlanda.com>.



Kode berria (ZK) onartu zenean, lehen aldiz sartu ziren gorrotoa, indarkeria edo diskriminazioa zigortzen zituzten xedapenak (ZKko 510. artikulua) edo delitu arrunten zigorrak gogortzen dituzten inguruabar astungarri orokorrak, baldin eta delitu horiek arrazismoa, antisemitismoa edo antigitanismoa edo beste diskriminazio-arrazoi batzuk direla eta egiten badira (Landa Gorostiza, 2018).

1995etik gaur egunera arte, lege-esparruak zenbait erreforma izan ditu, eta garrantzitsuena, zalantzarik gabe, 1/2015 Lege Organikoak ekarri zuena izan da: babestu beharreko kolektiboaren kopurua handitzea eragin du, eta, aldi berean, doikuntza teknikoaren bidez, epaileek legeak esandakoa eraginkortasunez aplikatu ahal izatea lortu nahi zen. Gaur egun, esan daiteke astungarri generikoaren jurisprudentzia, eta –arazo handiagoekin– hitzen bidezko gorroto-delituen (gorroto-diskurtso kriminalizatua: ZKko 510. artikulua) figuraren jurisprudentzia “abiatu” egin dela, gero eta handiagoa baita arlo horretako jurisprudentzia-corpora. Baina lege-esparrutik edo jurisprudentzia-aplikaziotik haratago, bada beste dimentsio guztiz garrantzitsu bat: Zein da errealitate enpirikoa? Ba al dugu datu ofizialik zenbat delitu egiten diren jakiteko? Eta zenbat kondenatzen eta zigortzen diren jakiteko? Estatistika onik gabe, zaila da balantze bat egin eta adieraztea ea ondo konfiguratuta dauden legezko tresnak eta ea ondo aplikatzen diren. Ekarpene honen ardatza, beraz, hau izango da: mapa enpiriko horren egoera moduko bat aurkeztea, behin-behineko balantze gisa.

Eginkizun horretarako, hemen topatu ditzakegu Espainiako gorroto-delituei buruzko datu-iturri ofizial nagusiak: Estatuko Fiskaltza Nagusiaren urteko memoriak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren urteko memoriak, Espainiako Gobernuaren Barne Ministerioak urtero biltzen dituen polizia-gertakarien txostenak eta, bere autonomia erabiliz, Eusko Jaurlearitzako Segurtasun Sailak, Ertzaintzak, biltzen dituenak. Hori guztia aztertuko dugu orain.

Fiskaltza eta botere judiziala

Fiskaltzaren azken bi memoriak (Estatuko Fiskaltza Nagusia [FGE], 2022, 2023) eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren memoriak (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia [CGPJ], 2023) 2022. urtera arteko datuak jasotzen dituzte, urte hori barne, eta haietatik ondorioztatzen den egoera atsekabegarri samarra da. Izan ere, Fiskaltzaren memoriak (Botere Judizialarena baino askoz osatuagoa da), hau dio 2022. urtean jasotako datuei buruz (2021. urteari dagozkion jardueri buruzkoak dira):

“Oso zaila da, edo ia ezinezkoa, Espainia osoko Instrukzio Epaitegietan delitu horiengatik bideratzen diren zigor-arloko prozeduren kopuru zehatza zein den zehaztea. Gaur egun martxan dauden erregistro-aplikazio informatikoez ez dute ahalmenik horri buruzko informazio fidagarria eskaintzeko” (FGE, 2022: 955).



Hurrengo urtean, 2022. urteko jarduerari dagokion Fiskaltzaren memoriak ildo berari jarraitzen dio:

“Atal honetan eskaintzen diren datu estatistikoak, zehaztasunari dagokionez, kontu handiz hartu behar dira, lehen esan bezala, astungarriak izan direla jo diren delituen datu-iraulketa eragozten duten erregistro-arazoak direla eta. Ematen diren zifrak espezialisten memorietan emandakoak dira, eta horien artean, batzuek, prozeduren eta epaien kontrol eta ezagutza osoa izateko zailtasunez gain, adierazten dute lankideek ez dutela horri buruzko informazio osoa jakinarazten. Fiskaltzek, bakoitzak bere neurriaren eta baliabideen arabera, lanaren antolaketa desberdina dutelako gertatzen da hori” (FGE, 2023). 985)¹.

2021eko memoriak, informazio-iturri gurutzatuetara joz (gorroto-delituengatik instruitzen diren eta epaitegietara bidaltzen diren polizia-atestatuak; Barne Ministerioaren Gorroto-delituen Aurkako Borrokarako Bulego Nazionalak zentralizatutako datuak; erregistro judizialak; Fiskaltzaren salaketak eta kereilak), *gutxi gorabeherako* zifrak ematen zituen (FGE, 2022: 955): 1.824 prozedura judicial penal inguru hasi ziren 2021ean, eta 1.434, berriz, 2020an. Horrez gain, lurraldeko fiskaltzek hasitako ikerketa-eginbideak jasotzen dira: 224, 2021. urtean, eta 236, berriz, aurreko urtean, 2020an (FGE, 2022: 956). Horri gehitu behar zaio 2021ean 102 eginbide ireki zirela Estatuko Fiskaltza Nagusiaren ordezkariak espezializatuan zuzenean aurkeztutako gorroto-delituen salaketengatik (gehienak 2020an izandako gertakariei buruzkoak dira): 102 salaketa horietatik 97 Zigor Kodeko 510.1 artikuluko adierazpen-delituei dagozkie, eta 97 horietatik ia guztiak IKTen bidez eginak izan ziren. Nolanahi ere, 102 salaketetatik 53 zuzenean artxibatu ziren, *ab initio* garrantzi juridiko-penalik ez zutelako (FGE, 2022: 951).

Hortik aurrera, Fiskaltzaren 2021eko memoriak izaera desberdineko eta zehaztasun gutxiko datuen multzo sakabanatu bat aipatzen du. Horien artean, agian interesgarriena da akusazio-idazkien kopurua % 44,44 handitu zela aurreko urtearekin alderatuta: 135 izan ziren 2020. urtean, eta 195, berriz, 2021. urtean (FGE, 2022: 948 eta 959). Era berean, adierazten du praktikan gehien aplikatu diren gorroto-delituen tipo penal espezifikoaren artean ohikoena Zigor Kodeko 510.2.a artikuluko duintasunaren lesioa dela. Eta hau eransten du:

“(…) ZKko 22.4 artikuluko bereizkeriazko motibazioaren astungarria aplikatzen zaien tipo penal orokorreari dagokienez, ugarienak lesioak eta

¹ Gainera, fiskaltza guztiei komunak zaizkien alderdiei dagokienez, hau ere esaten da: “Memorietan ia guztiek adierazten dute zailtasunak daudela gorroto-delituengatik egindako salaketen, akusazio- eta artxibo-idazkien eta ematen diren epaien kontrol eraginkorra izateko eta kontabilizatzeko. Alderdi horrekin batera, behin eta berriro eskatzen dute, delitu-eremu guztiak ez ezik, arlo horretan gertatzen diren diskriminazio-arrazoien berezitasun guztiak jasotzen dituen erregistro ofizial bat izatea” (FGE, 2023: 984)



mehatxuak dira. Era berean, adierazten da, salaketa-prozeduren eta -idazkien artean, etengabe handitu dela jarrera hori sare sozialen edo IKTen bidez gauzatu duten ekintzak” (FGE, 2022: 948).

Xede-kolektiboek dagokienez, hau adierazten da: “prozeduretan eta akusazioetan gehien erabiltzen den diskriminazio-motibazioa arrazismoarekin eta xenofobiarekin lotutakoa da (arrazismoa, etnia, jatorri nazionala eta nazioa). Hala ere, sexu- eta genero-orientazioari eta -identitateari buruzko bereizkeria-motibazioek gora egin dute (aurreko urteetan ere nabari zen hori). Eta beste horrenbeste gertatzen da motibazio ideologikoarekin” (FGE, 2022: 948).

Azkenik, gorroto delituagatik 2021. urtean lehen auzialdian emandako kondenen edo astungarritzat jotzen diren kondenazko epaien kopurua ere jasotzen da: 91. Horietatik 49 ZKko 22.4 artikuluko astungarriaren aplikazioari dagozkio, eta 28, berriz, duintasunaren lesioko delituei (510.2 artikulua) (FGE, 2022: 958 eta hurrengoak).

2022ko memoriak ez du aurrekoaren egitura berdina², eta datu gutxiago ematen ditu neurri batean. Dena den, nabarmendu behar da asko murriztu direla ikerketa-eginbideak (FGE, 2023: 985)³ aurreko urteekin alderatuta. Hala, bada, adierazten da eginbide horiek, guztira, 198 direla, eta horietatik, 166tan soilik dugu informazio osatuagoa. Informazio osatuago horren arabera, esan daiteke 35 eginbide IKTen bidez egindako suposizioetakoak direla (haietatik 101 artxibatu egin ziren⁴), 43tan salaketa jarri zela, eta 22 izapidetzen ari zirela urtea amaitzean (FGE, 2023: 985 eta hurrengoak). Akusazio-idazkien kopuruak egonkor samar eusten dio (191 urte horretan, eta 192 aurreko urtean) (FGE, 2023: 987)⁵. Hala ere, ikusten da epaien kopurua handitu egin dela (152, eta aurreko urtean, berriz, 91, eta haietatik 125 kondena-epaiak izan ziren) (FGE, 2023: 988 eta hurrengoak). Edonola ere, eskura dauden datu-iturriek mugak izan arren eta badaezpadakoak diren arren, aurreko urteko memorian adierazitako joerei eusten zaiela dirudi, oro har: batetik, gehiengoa izaten jarraitzen dute etnia-kolektiboen aurkako gertakariak, atzetik dituela sexu-orientazioari eta -identitateari

2 Esate baterako, memoria horretan, aurreko urtekoarekin alderatuta, ez dira kontuan hartzen –eta ez dira sartzen– Barne Ministerioaren txosteneko datuak, eta nabarmentzeko modukoa da hori.

3 Adierazten da jaitziera hori “norbanakoek eta elkarrekin gorroto-delitu baten aurrean egon behar duten elementuei buruz duten ezagutza gero eta handiagoaren ondorio izan daitekeela, eta, beraz, gutxiago salatzen direla fiskaltzetan”.

4 Artxibatzen diren kasu gehienak egitateek zigor-arloan garrantzirik ez izatea dute arrazoiz, nahiz eta badiren jada judizializatuta daudelako artxibatzen diren kasuak edo beste fiskaltza batzuen aldeko inhibizioa dutenak (FGE, 2023: 986).

5 Nabarmentzen dute, halaber, murriztu egin direla 510.1.a artikuluan jasotako akusazio-idatziak: 21 izan ziren 2021. urtean, eta 6, berriz, 2022. urtean.



lotutakoak (FGE, 2023: 986 eta hurrengoak)⁶; eta, bestetik, gehiago dira —lehen baino gutxiago, hala ere— adierazpen-delituen kalifikazio juridikoak ekintzako delituenak baino (astungarria duten oinarrizko delituak) (FGE, 2023: 985 eta hurrengoak)⁷.

Azaldutakoa ikusita begi bistakoa denez, Fiskaltza datuak ematen saiatu arren, iturrien mugek eta aniztasunak ematen duten ikuspegia ez da oso fidagarria. Hori bai, aipatu berri den informazioa urria bada, esan behar da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren memoriak daturik ere ez duela, eta, beraz, datu-iturri onena Estatuko Fiskaltza Nagusiarena da⁸. Horregatik, ez gintuzke harritu behar onartu berri den 15/2022 Legeak, uztailaren 12koak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoak (2022ko uztailaren 14tik dago indarrean), hau xedatzea, zehatz-mehatz, 36. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan:

36 artikulua. Estatistikak eta azterlanak.

(...) 3. Estatuko Fiskaltza Nagusiak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak lege honen arabera aurkeztutako salaketan datuak bilduko dituzte, baita administrazio-ebazpenak eta epai judizialak ere.

4. Estatistika judizialak tratu baztertzailerari buruzko arau-hausteengatik erregistratutako gaiei buruzko datu espezifikoak bilduko ditu. Datu horiek arau-hauste penalei buruzkoak direnean, honako hauek jasoko dituzte,

6 Adierazten da ikerketa-eginbideetan hautemandako diskriminazio-arrazoen artean antisemitismoa (6), antigitanismoa (6), arrazakeria, etnia, nazioa, jatorri nazionala (67), ideologia, erlijioa eta sinesmenak (12) biltzen badira, guztira 91 direla, eta sexu-orientazioari, sexu-identitateari eta generoari dagozkienak, berriz, 59. Gainerako arrazoiak, kuantitatiboki baztergarritzat har badaitezke ere, honela banatzen dira: generoa (5), aporofobia, gizarte-bazterketa (3), eta gaixotasuna, desgaitasuna (8). Akusazio-idazkietan, halaber, matrize etnikoko xede-taldeak dira nagusi, adiera zabalean (antisemitismoa, antigitanismoa: 3; arrazismoa, etnia, nazioa, jatorri nazionala: 38; ideologia, erlijioa, sinesmenak: 26; guztira, 66). Bigarren taldea sexu-orientazioak, sexu-identitateak eta generoak osatutakoa da (50). Nabarmendu behar da idazkietan genero-arrazoiak 17 direla jada. Azkenik, epaien datuei dagokienez, antisemitismoa (3), arrazismoa, etnia, nazioa, jatorri nazionala (34) eta ideologia, erlijioa eta sinesmenak (19) batuz, 56 epai dira, guztira, eta sexu-orientazioari, sexu-identitateari eta generoari lotutakoak 37. Epaietan, genero-arrazoiak nabarmentzen dira, 20 baitira.

7 Ikerketa-eginbideak guztira 149 dira, hauek batzen badira: mehatxuak (1), osotasun morala (3), 510.1 artikulua (35), 510.2 artikulua (109) eta sentimendu erlijiosoak (1); eta 13, berriz, 22.4. artikuluko tipoaren astungarriak. Akusazio-idazkietan, guztira, 96 dira: 170.1 artikuluko mehatxuak (1); 173.1 artikuluko osotasun morala (10); 510.1 artikulua (6); 510.2.a artikulua (79) eta 91, berriz, 22.4 artikuluko astungarria duten oinarrizko delituak. Epaiak dagokienez, batuta osotasun moralari (11) eta 510. artikuluari (65) dagozkionak, 76 dira, eta 22.4 artikuluko astungarria duten oinarrizko delituak, berriz, 73.

8 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren webgunean delituei eta kondenei buruzko estatistika judizialari buruzko atalean hau adierazten da, hitzez hitz:

“Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Urteko Memoria da prozedura penaletako delituei buruzko informazioa lortzeko iturririk onena. Fiskalak hasitako eta kalifikatutako prozedura-kopurua eskaintzen du (aurretiazko eginbideak, epaimahaia, sumarioa, prozedura laburtuak, presazko eginbideak), eta epaiak, probintzien eta delituen arabera”. (<https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Estadistica-Judicial/Estadistica-por-temas/Datos-penales--civiles-y-laborales/Delitos-y-condenas/Actividad-del-Ministerio-Fiscal/>; azkeneko aldiz 2024ko otsailaren 16an sartuta). Ez dago, beraz, horrelako delituei buruzko informazio zehatzik; eta guztiz bestela gertatzen da, esate baterako, etxeko indarkeriari, genero-indarkeriari edo nahita egindako giza hilketari lotutakoekin.



gutxienez: jasotako salaketak; delitu horiekin lotuta hasitako prozedurak; prozedurak zer delitu-motengatik istrutzen diren; epaiak zer delitu-motengatik ematen diren; jokabidea diskriminatzailetzat kalifikatzeko kontuan hartutako diskriminazio-arrazoia; hala badagokio, bereizkeriazioa definitzen duen astungarria aplikatzen zaion; zenbat pertsona epaitu diren, prozedurak nola amaitu diren; haien funtsari buruzko ebazpenak eta ezarritako zigorrak eta neurriak. (...)⁹.

Eta Fiskaltzaren 2022ko memoriak berak lege-agindu hori aipatzen du funtsezko mugarri gisa, eta esaten du etapa berri bat ireki beharko lukeela “(...) datu zehatzekin, trazabilitatea egiteko eta kriminalitatearen bilakaerari buruzko hausnarketa serio eta zehatzak egiteko aukera emango duten datuekin” (FGE, 2023: 984)¹⁰.

2018-2022 aldiko epaien azterketa

Estatistika judizialari buruzko datu fidagarriak ez dagoenez, komeni da hemen plazaratzea berriki egindako azterketa bat, 2018. eta 2022. urteen artean gorrotzko delituei lotutako epai judizial asko aztertzen baititu (Giménez-Salinas Framis eta Landa

⁹ Artikulu hori atal hauek osatzen dute:

36. artikulua. Estatistikak eta azterlanak.

1. Lege honetan eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko legeria espezifikotan jasotako xedapenak gauzatzeko, herri-aginteez azterlanak, memoriak edo estatistikak egingo dituzte, betiere tratu-berdintasunarekin zerikusia duten alderdiei buruzkoak badira edo haiei eragiten badiete, eta arlo horretako nazioarteko estandarren arabera, lege honetan aurreikusitako arrazoiengatik diskriminazioaren kausak, hedadura, bilakaera, ezaugarriak eta ondorioak zein diren hobeto jakiteko.

2. Segurtasun Indar eta Kidegoek egin diren salaketen osagai diskriminatzaileari buruzko datuak bilduko dituzte, eta dagozkien segurtasuneko sistema estatistikoetan prozesatuko dituzte. Datu pertsonalak babesteko eskubidea eta arrazaren edo etniaren autoidentifikazioaren oinarritzko eskubidea erabat errespetatuz argitaratuko dira.

(...)

5. Administrazio publikoek bereizkeria-tipologiei buruzko datuak bilduko dituzte, Barne Ministerioak Espainiako gorrotzko delituen bilakaerari buruzko urteko txostenean eraturakoez bat etorritik, betiere informazioa biltzen duen erakunde bakoitzaren eskumenak gauzatzeari buruzko legeria errespetatuz.

Nolanahi ere, artikulu honetan aipatzen diren jardueren esparruan lortutako datu pertsonalek datu pertsonalen babesa arautzen duen legeria bete behar dute, eta, hala badagokio, sekretu estatistiko bidez babestuta geratuko dira, eta ezingo zaizkie hirugarrenei jakinarazi, salbu eta datu pertsonalak babesteko legerian berariaz ezarritako kasuetan”.

¹⁰ Gainera, memorian adierazten da lege horrek, azken xedapenetako bosgarrenean, paragrafo berri bat gehitzen diola Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 18.3 artikuluari. Artikulu horrek honela dio hitzez hitz: “(...) Gorrotzko delituen aurkako atalean gertakari horiekin lotuta jarraitzen diren prozedura guztien erregistro bat egin beharko da, fiskalek kontsulta egiteko aukera izan dezaten, kasu bakoitzean eskumena esleitu duen prozedura baten berri dutenean. Aukera egokia izan daiteke xedapen hori hainbestetan eskatu den erregistro hori izateko behin betiko eragilea izan dadin. Erregistro horretan, delitu-motak eta bereizkeria-arrazoi bakoitza banan-banan bereiziko dira, bai eta prozedura bakoitzean emandako epaien erregistroa ere, auzialdien eta epaiaren nondik norakoaren arabera”.



Gorostiza, 2023)¹¹. Azterketa horretan, neurri batean, aipatutako xede-kolektiboen eta aplikatutako arau penalen mapa bikoitz bat aurre-irudikatzen da. Eta trantsizioko informazio-elementu gisa balio dezake estatistika judiziala hobetzen den arte, lehen ere aipatu dugun bezala. Izan ere, lan hori CENDOJ dokumentu judizialeko zentroak berak emandako lagin zabal batetik abiatu zen, eta, lehen arazketa-lan baten ondoren, aintzat hartutako aldi horretako 418 kasu osatutako garrantziko epaien hasierako multzo bat aukeratu zen. Horietatik, ordea, 241 ez ziren kontuan hartu, genero-arrazoiengatiko astungarria aplikatu zen kasuei zegozkielako (Giménez-Salinas Framis eta Landa Gorostiza, 2023: 24). Lehen datu horrek erakusten digu genero-arrazoiak atzean dituzten kasuak asko direla, % 58,7, hain zuzen ere, eta horrek etorkizuneko lehen gogoeta bat eginarazten digu: arrazoi diskriminatzaile horiek Zigor Kodearen 22.4 artikulua idazketan agertzeak, 2015ean izandako zigor erreformaren ondoren (1/2015 LO), kriminalitate horrek xede-kolektiboen mapa ez ote duten distortsionatuko. Eta hori gertatuko da ez badira estatistikoki ongi bereizten, alde batetik, emakumeen aurkako indarkeria matxista, eta, bestetik, gorrotzko kriminalitatea, hau da, arrazismoa, xenofobia, homofobia, transfobia... (Giménez-Salinas Framis eta Landa Gorostiza, 2023: 88 eta hurrengoak).

Gainerako 177 kasuak (Giménez-Salinas Framis eta Landa Gorostiza, 2023: 27) kolektiboka banatzen dira. Talde nagusia (% 50,9k osatzen dute) xede-talde etnikoa da, zentzu zabalean (arrazoia, jatorri semita, etnia gitanokoa izatea, etnia, jatorri nazionala, nazionalitatea, sinesmenak, erlijioa, ideologia), eta bigarren taldean kolektibo sexualak daude (sexu-orientazioa eta -identitatea), % 22,7 osatzen dutela (Giménez-Salinas Framis eta Landa Gorostiza, 2023: 85 eta hurrengoak)¹². Beraz, kolektiboen maparen ia erdia delinkuentzia mota horren jatorrizko xede historiko izan diren aurkako erasofenomenoekin lotuta dago (arrazismoa, xenofobia...), eta ia laurden bat portaera homofoboek eta transfoboek osatzen dute. Azterketa berak nabarmendu egiten du zeinen altua den ideologiarekin (ideologia politikoa) lotutako kasuen ehunekoa, guztizkoaren % 15,3 baita (kop.=177) (Giménez-Salinas Framis eta Landa Gorostiza, 2023: 85 eta hurrengoak).

Azkenik, delitu-moten mapari buruzko zenbait ondorio ere nabarmendu behar dira, nagusi diren jarrera-moten termometro gisa (aztertutako epai judizialetan islatzen da). Horren haritik, adierazpen-delituen ehunekoa % 79,6ra iritsiko litzateke (gehien-gehienak Zigor Kodeko 510. artikuluko kasuei dagozkie), eta astungarriak dituzten delituak (batez ere, lesioak) % 18,6 izango lirateke. Beraz, makineria judizialaren funtzionamenduari buruz lortzen den koadroak erakusten du ahalegin handiena adierazpen-jokaeren jazarpenean egiten dela, 510. artikuluko tipo penala 2015eko erreformaren ondoren (1/2015 LO) zabaltzearen eta aldatzearen ondorioz (Giménez-Salinas Framis eta Landa Gorostiza, 2023: 86 eta hurrengoak).

11 Azterketa hori ildo bereko beste azterketa batzuen jarraipena da; hau da, Giménez Salinas Framis et. al. (2019).

12 Gainerako kolektiboen (gaixotasuna, gutxitasuna, adina, familia-egoera, gizarte-bazterketa, aporofobia...) garrantzia nahiko txikia izango litzateke.



Poliziaren datuak

Horri buruz argitaratu den azken txostenaren arabera, Espainian, 2022an, 1.869 gorroto-gertakari izan ziren, eta horietatik 73 arau-hauste administratiboei dagozkie. Delitua izan daitezkeen gorrotzko 1.796 gertakarietatik, babesten den taldearen arabera, banaketa hau dugu: arrazismoa/xenofobia (% 42,04), sexu-orientazioa eta genero-identitatea (% 25,56), ideologia (% 13,64), sexua/generoa (% 10,52), erlijio-sinesmenak edo -praktikak (% 2,62), gutxitasuna (% 1,28), antigitanismoa (% 1,22), aporofobia (% 0,95), belaunaldi arteko diskriminazioa (% 0,83), antisemitismoa (% 0,72) eta gaixotasuna (% 0,61) (Barne Ministerioa, 2023, 36 or.).

Kolektiboen maparen bistaratze batek, beraz, hau erakusten du: lehen zerrenda batean, arrazismo-xenofobia dago zentzu zabalean (arrazakeria/xenofobia *stricto sensu*, ideologia, erlijio-sinesmen edo -praktikak, antigitanismoa eta antisemitismoa batuz), eta % 60,24 osatzen dute; beste zerrenda batean, sexua zentzu zabalean oinarri hartuta osatzen den beste kolektibo bat dago (orientazio sexuala eta genero identitatea gehi sexua/generoa), eta % 36,08 dira; eta hirugarren zerrenda batean, beste kolektibo batzuk daude (aporofobia, belaunaldi arteko diskriminazioa, gutxitasuna duten pertsonak, gaixotasuna), eta % 3,67 dira.

Gertakarien multzoak (kop.=1.869) adierazten duen delitu-tipologiari erreparatuz gero (hau da, arau-hauste administratiboak ere kontuan hartuta), bi talde nabarmentzen dira: batetik, lesioak multzoaren ia ¼ dira (% 22,63); eta, bestetik, mehatxuak daude (% 18,08). Horren ondoren, baina nahiko urrun, irainak (% 6,21), kalteak (% 5,67), gorrotoaren sustapena (% 5,62), tratu degradatzailea (% 5,03), hertsapenak (% 3,91), umiliazioa eta mespretxua (% 3) eta Konstituzioaren aurkako beste delitu batzuk (% 2,89) daude. Harrigarria da, eta deigarria, kasuen % 26,9 baino gehiago, guztizkoaren laurdena baino gehiago, «beste batzuk» gisa sailkatzen direla, eta, horren ondorioz, ezinezkoa da haien tipifikazio potentziala zein den jakitea (Barne Ministerioa, 2023: 11).

Delituen mapan, batez ere adierazpen-delituzko gertakariak nagusitzen dira, hitzez egindakoak: % 32,91 dira, mehatxuak, irainak, gorrotoaren sustapena, umiliazioa eta mespretxua delitu-multzoa aintzat hartzen badugu; eta % 41,85, berriz, haiei tratu iraingarria eta hertsapenak gehitzen badizkiegu. Egitate-delituak, aldiz, % 28,3 dira, eta % 31,19ra igoko lirateke, «Konstituzioaren aurkako beste delitu batzuk» kategoria gehitzen badugu.

Orain, begiratu diezaiogun Euskal Autonomia Erkidegoari. Izan ere, txosten ofizial propioak egiten dira, eta, txosten horietan, polizia-lanaren metodologia pixkanaka hobetzeak –estatu-mailan baino gehiago– azken urteetan jasotako gertakariak nabarmen areagotzea errazten du (Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra eta Segurtasun Saila, 2023: 13 eta hurrengoak). Euskadin, 2022. urtean,



delitu izan zitezkeen 438 gorrotzko gertakari izan ziren, eta horietatik 3 arau-hauste administratiboei dagozkie. Kontuan hartzen badugu 2016an 124 delitu-gertakari erregistratu zirela, 2017an 129 erregistratu zirela, 2018an 130 identifikatu zirela, 2019an 105 erregistratu zirela, 2020an 241 erregistratu zirela, eta 2021ean 279 identifikatu zirela, nabari da azken 3 urteetan gertakarien gorakada handia izan dela, baina are nabarmenagoa azken urtekoa (Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra eta Segurtasun Saila, 2023: 13).

435 gorroto-delituetatik (erregistratutako gorroto-delituak), batzuk diskriminazio antzak direnez, abiapuntua, errealitatean, kolektibo babestuen aurkako 444 delitu dira. Kolektibo babestuen arabera, banaketa hau dugu: arrazakeria/xenofobia (% 52,03), sexu-orientazioa eta -identitatea (% 21,62), generoa (% 15,32), ideologia eta orientazio politikoa (% 7,66), aniztasun funtzionala (% 2,03), erlijio-sinesmena edo -praktikak (% 0,68), aporofobia (% 0,23), adina (% 0,23) eta giza eskubideak (% 0,23) (Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra eta Segurtasun Saila, 2023: 44).

Kolektiboen mapa honela laburbiltzen da zerrenda globalen arabera: kolektibo etnikoa (arrazismoa, xenofobia, ideologia, orientazio politikoa, erlijio-sinesmena eta -praktikak eta antisemitismoa) *in extenso* aintzat hartuta % 60,37 da; hau da, gorrotoaren maparen bi heren inguru. Bigarrenik, sexu-taldeak, horiek ere *in extenso* hartuta (sexu-orientazio eta -identitatearen eta genero-identitatearen/-arrazoien ondoriozko gertakariak biltzen dituzte), kasuen % 36,94 dira, talde guztien herena baino gehiago dira, alegia; eta gainerako kolektiboak (aporofobia, dibertsitate funtzionala, adina eta beste batzuk) % 2,72 izango lirakeke. Beraz, Espainia osoan ikusten genuenaren oso antzekoa da mapa, egitura aldetik, salbu eta gorabehera ideologikoei dagokienez (eta garrantzitsua da), non Espainiako ehunekoak (% 13,64) Euskal Autonomia Erkidegoan hautemandakoaren ia bikoitza baita (% 7,66).

Gertakarien banaketaren ikuspegitik, eta kontuan izanik zer tipo penal potentzial izan daitezkeen, Euskal Autonomia Erkidegoko txostenek abantaila bat dute Espainiako Barne Ministerioaren datuen aldean: ez dago tipifikazioa galtzen duen «beste batzuk» talderik, eta, gainera, *ab initio* salbuesten dira arau-hauste administratiboak. Horrez gain, datuen banakatzeak zehatz-mehatz eta argi erantzuten die Zigor Kodearen erreferentzia zehatzei delitu-tipologia identifikatzerakoan. Beraz, segurtasun eta zehaztasun handiagoa ditu. Datuek, nolahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoan ere, Espainian bezala, bi gertakari-talde nagusi adierazten dituzte: lesioak (180 kasu: % 41,38) eta mehatxuak (90 kasu: % 20,69); biak ala biak hurrengo delitu-taldeetatik oso urrun. Baina Euskal Autonomia Erkidegoan, oro har, lesio gehiago detektatu dira (% 41,38) Espainia osoan baino (% 22,63), ia bikoitza, alegia. Bi delitu-talde nagusiek – lesioak eta mehatxuak – delituzko gertakarien % 62,07 biltzen dute; hau da, gorrotoaren maparen erdia baino gehiago. Lesioak multzoaren heren bat baino gehiago dira jada (180 kasu: % 41,38), eta haiei *in extenso* «egitateekin» gauzatutako delituen dinamika bereko beste delitu batzuk eranstean bazeazkie (hilketak, kop.=1, torturak kop.=1,



bahiketak kop.=1, sexu-erasoak kop.=5, erresistentzia eta atentatuak kop.=3; kalteak kop.=21, eta ebasketa kop.=8 eta lapurreta kop.=2 ere bai), potentzialki delituak diren gertakarien ehunekoa % 51,03 izango litzateke (kop.=222). Beraz, Euskadin, joera da delitu-mapa egonkortzen joatea gertakari (egitate-gertakari) larrienen inguruan, adierazpen-gertakarien (adierazpen-delituak) aurrean (Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra eta Segurtasun Saila, 2023: 45 eta hurrengoak). Eta «hitzen bidezko» gorroto-delituak («*hate speech*» zentzu zabalean) hauek izango lirateke: mehatxuak (kop.=90), gorrotzko diskurtsoa zentzu hertsian (kop.=34), irainak (kop.=10) eta kalumniak (kop.=3) batuta, % 31,49raino iristen dira (137), eta % 47,82 dira (208), beste kategoria orokor baina hurbil batzuk metatuz gero. Hala, hurbileko kategoria horiek batuz ere, nabarmendu behar da adierazpen-izaerako delitu-gertakari potentzialak aurreko urteetan zuten gehiengoa galdu dutela, eta orain arte lortutako zifrarik baxuena dela azken hau.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatu osoarekin alderatuta, bi desberdintasun nagusi daude: lehenik eta behin, lesioen kopurua handiagoa da, eta, bigarrenik, «egitateak» dituzten gorroto-delituaren erregistroa nagusitzen hasi zaio «adierapenekoak» direnekin alderatuta, Espainia osoan ez bezala.

Ondorioa

Espainiako polizia-estatistikak sendotze-bideari ekin zion 2013tik aurrera, gorrotzko gertakariari buruzko Barne Ministerioaren lehen txostenarekin (Barne Ministerioa, 2014) eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren txostenekin (Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra eta Segurtasun Saila, 2018). Ez da gauza bera gertatzen, ordea, estatistika judizialarekin, ez baitago gertakarien trazabilitatea egiterik, eta artikulazio sistematiko bat egiteko zain dago, hala agintzen baitio lege *15/2022 Legeak, uztailaren 12koak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoak*: Estatuko Fiskaltza Nagusia eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia datuen erregistro sistematikoa egitera behartzen ditu. Dena den, badirudi, eskura dauden datuen arabera, iturri estatistiko ahul horrek ematen dituen datuen arabera, gorroto-delituen mapan nagusiak direla talde etnikoen aurkako gertakariak, lehenik eta behin, eta, horren ondoren, transfobia eta homofobia kasuen konstelazioak, biak ere beste kolektibo batzuetatik oso urrun. Nabarmendu beharreko berezitasun gisa, aipatu behar da, lehenik, «ideologiak» (hutsak)¹³ erregistro nahiko altuak dituela (ez, ordea, EAEn); bigarrenik, «genero-arrazoia» agertzeak gai honetako erregistro estatistikoa distortsionatzeko arriskua dakar, gaur egun ez baitira argi eta behar bezain ongi bereizten jatorrizko gorroto-delituak eta emakumeen aurkako indarkeria matxista; eta, azkenik, polizia-gertakarien erregistroetan agerikoa da adierazpen-delituen

13 Kategoria horrek distortsio-ahalmen berezia («Troiaiko zaldia») duela adierazi du, ongi adierazi ere, denongatik, Tapia Ballesterosek (2021: 284 eta hurrengoak).



gehiegizko errepresentazioa egiteko joera dagoela (baina hori zuzentzen hasita dago, EAEn, bederen).

Beraz, balantzearen begirada bat egiteko, zain egon beharko dugu estatistika-iturriek zehatz-mehatz erakusten diguten arte zer-nolako kondanak gertatzen diren. Hori ezinbestekoa da lege-eredua bera eta jurisprudentiako aplikazio-lerroak behar bezala birbideratu ahal izateko, eta, azken batean, polizia-ikerketara bera ere birbideratzeko; izan ere, polizia-ikerketara horrek, oinarri-oinarritik, gertakariaren “itzulerako” trazabilitatearen ikuspegi ideala izango luke, eta trazabilitateak eraginkortasuna handiagoa emango luke, eta segurtasun juridiko handiagoa ere bai, eta bermatuko luke –gehiegi zigortu gabe– neurrizko esku-hartze penala, haren *ultima ratio* eginkizuna betez.


Bibliografia

Barne Ministerioa (2023). *Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España 2022*. Barne Ministerioa / Espainiako Gobernu. https://www.interior.gob.es/opencms/export/sites/default/galleries/galeria-de-prensa/documentos-y-multimedia/balances-e-informes/2022/Informe_Evolucion_delitos_odio_2022.pdf

Barne Ministerioa (2014). *Informe sobre la evolución de los delitos de odio en España*. Segurtasuneko Estatu Idazkaritza. Koordinaziorako eta Azterlanetarako Kabinetea. <https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/prensa/balances-e-informes/2013/Informe-sobre-los-delitos-de-odio-en-Espana-2013.pdf>

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (2023). *Memoria sobre el estado, funcionamiento y actividades del Consejo General del Poder Judicial y de los juzgados y tribunales en el año 2022*. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Idazkaritza Nagusia. https://www.poderjudicial.es/stfls/CGPJ/SECRETAR%C3%8DA%20GENERAL/MEMORIA%20ANUAL/FICHERO/20230907%20CGPJ_Memoria%202023.pdf

Estatuko Fiskaltza Nagusia (2023). *Memoria elevada al Gobierno de S.M. presentada al inicio del año judicial por el Fiscal General del Estado Excmo. Alvaro García Ortiz jauna*. Estatuko Fiskaltza Nagusia. Justizia Ministerioa. https://www.fiscal.es/memorias/memoria2023/FISCALIA_SITE/recursos/pdf/MEMFIS23.pdf



Estatuko Fiskaltza Nagusia (2022). *Memoria elevada al Gobierno de S.M. presentada al inicio del año judicial por el Fiscal General del Estado Excmo. Alvaro García Ortiz jauna*. Estatuko Fiskaltza Nagusia. Justizia Ministerioa.
https://www.fiscal.es/memorias/memoria2022/FISCALIA_SITE/recursos/pdf/MEMFIS22.pdf

Giménez-Salinas Framis, Andrea, Landa Gorostiza, Jon-Mirena (zuz.), Fernández Ogallar, Beatriz, Gordon Benito, Iñigo, Martín Silva, Uxue eta Montoya Baños, Maider (2023). *Análisis de casos y sentencias en materia de racismo, xenofobia, LGTBIfobia y otras formas de intolerancia 2018-2022*. Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokia.
https://www.inclusion.gob.es/oberaxe/ficheros/documentos/Analisis_casos_sentencias_accesibilidad.pdf

Giménez-Salinas Framis, Andrea, Pérez Manzano, Mercedes, Cancio Meliá, Manuel, Díaz Lopez, Juan Alberto, Jordá Sanz, Carmen eta Díaz Izquierdo, Paloma (2019). *Análisis de casos y sentencias en materia de Racismo, Xenofobia, LGTBifobia y otras formas de intolerancia 2014-2017*. Lan Ministerioa, Migrazioak eta Gizarte Segurantzza, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokia.
<https://www.inclusion.gob.es/oberaxe/ficheros/documentos/Informe-Analisis-y-Sentencias-Definitivo.pdf>

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra eta Seguratasun Saila (2023). *Informe de incidentes de odio de Euskadi 2022*. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.
http://katedraddhh.eus/documentos/pdf/informes/Informe_de_incidentes_de_Odio_Euskadi_web.pdf

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra eta Seguratasun Saila (2018). *Informe de incidentes de odio de Euskadi 2017*. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.
http://katedraddhh.eus/documentos/pdf/informes/Informe_de_Incidentes_de_Odio_de_Euskadi_2017_-_CASTELLANO_-_DEFINITIVO.compressed.pdf

Landa Gorostiza, Jon-Mirena (2018). *Los delitos de odio. Artículos 510 y 22.4º CP 1995*. Tirant lo Blanch.

Tapia Ballesteros, Patricia (2021). El discurso de odio del art. 510.1.a) del Código Penal español: la ideología como un Caballo de Troya entre las circunstancias sospechosas de discriminación. *Política Criminal*, 16-31, 284-320.
<https://politicrim.com/wp-content/uploads/2021/07/Vol16N31A11.pdf>



**ikus
pegi** Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

eremu ta azaldu zazu









Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERIKONKA DEMOGRAFIAKORAREN SAIA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO


MIGRAZIOARAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA
**PACTO SOCIAL
VASCO PARIA.**
LA MIGRACIÓN

iraila ■ 2024

Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen





Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen

Julia Shershneva Zastavnaia
Editorea

CIP. Biblioteca Universitaria

Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen [Recurso electrónico] / Julia Shershneva Zastavnaia, editorea ; Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de Inmigración. – Datos. – Bilbo: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2024. – 1 recurso en línea : PDF (340 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

En la cub.: Ikuspegi, UPV/EHU y Gobierno Vasco, Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico.

ISBN: 978-84-9082-814-4.

1. País Vasco – Emigración e inmigración – Siglo XXI. 2. País Vasco – Emigración e inmigración – Aspecto social. I. Shershneva, Julia, ed. II. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)314.7(460.15)

Argitaraldi elektronikoa

Urtea eta lekua: 2024, Bilbo

Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Dokumentazioa: Antonio Gómez Parada, *Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia*

Diseinua eta maketazioa: Emilia Oleaga

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

ISBN: 978-84-9082-814-4

Argitalpen hau nola aipatu:

(APA 7 arauen arabera)

Shershneva Zastavnaia, Julia (Ed.) (2024). *Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. https://ikuspegi.eus/files/publicaciones/200_4.pdf



Aurkibidea

Aurkezpena	5
Julia Shershneva Zastavnaia	
1. Hogeie urteko immigrazioa EAEn: bilakaera eta migrazio-faseak.....	7
Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Ane Estabaranz Delgado, Iraide Fernández Aragón	
2. Ikuspegi, errealitate iraunkor bihurtu den ideia.....	21
Cristina Blanco Fernández de Valderrama	
3. Migrazio-, atzerritartasun- eta asilo-zuzenbidearen bilakaerari so (1985-2024)	45
Iker Barbero González	
4. Asiloa eta babesia Euskadin: azken bi hamarkadetako balantzea.....	85
Arantza Chacón Ormazabal	
5. Immigrazioarekiko jarreraren barometroa: denboran zeharreko ikuspegia	99
Julia Shershneva Zastavnaia, Larraitz N. Zumeta Sánchez, Taide Arteta Esnal	
6. Zurrumurruen aurkako estrategiaren garaia: estereotipoetatik fake news izenekoetara	115
Zurrumurruen Aurkako Sarea / Red Vasca Antirumores	
7. Migrazio-kazetaritza, kritiketatik harago.....	123
María Ruiz Aranguren	
8. Gorrotozko gertakariak Euskadin: azken bilakaera.....	139
Jon-Mirena Landa Gorostiza	
9. Migrazioa, asiloa eta generoa: gogoetarako eta esku hartzeko ekarpenak	151
Trinidad L. Vicente Torrado, Maryam Fathi	
10. Gazteen arteko aniztasuna EAEn (0-24 urte): atzerritar jatorria duten eta/edo arbaso atzerritarrek dituzten gazteak, zenbakitan.....	165
Beatriz Otero Gutiérrez, Irune Ruiz Ciarreta, Oier Ochoa de Aspuru Gulin	
11. Ikasle etorkinak EAEko hezkuntza-sisteman: hogeie urteko ibilbidea	185
Francisco Luna Arcos	
12. Euskara eta immigrazioa: gogoetak zentzuzko politikarako	207
Xabier Aierdi Urraza, Andrea Ruiz Balzola	
13. Atzerritar jatorriko biztanleriaren okupazioaren bilakaera Euskadin	223
Maite Fouassier Zamalloa, Ane Estabaranz Delgado, Lía González Estepa	
14. Jatorri atzerritarreko immigrazioa, desberdintasuna eta pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan ...	237
Luis Sanzo González	
15. Etxegabetasuna Euskadin, azken 20 urteotan	257
Miguel Angel Navarro-Lashayas	
16. Eraldatzeko parte hartzea: irekita jarraitzen duen prozesua	271
Soraia Chacón Ramos, Naiara Vink Larruskain, Nerea Layna Allue	
17. Kulturen arteko bitartekaritzaren bilakaera Euskadin, Biltzen zerbitzuaren esperientziatik abiatuta	283
Diógenes Sabana Bisoko	
18. Interkulturalismoaren alorrean egiteke daudenak.....	297
Andrea Ruiz Balzola	
19. 25 urte labirintoan: Europako immigrazio- eta asilo-politika erkidearen agendak.....	311
Gemma Pinyol-Jiménez	
20. Hogeie urtez ebidentziak bildu ondoren	327
Imanol Zubero Beaskoetxea	